

## PASAIKO KANPO KAIARI BURUZKO AGENDA 21EN HERRITARREN FOROAREN HIRUGARREN BILERA

<b>Bilera antolatu duen organoa:</b>	Hondarribiko Udala
<b>Deialdia egin duena:</b>	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
<b>Data, tokia eta ordua:</b>	2011ko otsailak 24 Hondarribiko Udaleko Udalbatza Aretoa 19:00
<b>Harremanetarako pertsonak:</b>	Ingurumena eta Agenda 21 departamentua: - Naroa Susperregi Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Edurne Simón
<b>Telefonoak:</b>	943 111 242 (Naroa Susperregi) 943 492 215 (Izadi 21)
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:ingurumena@hondarribia.org">ingurumena@hondarribia.org</a> (Naroa Susperregi) <a href="mailto:info@izadi21.net">info@izadi21.net</a> (Izadi 21)
<b>Gai-zerrenda:</b>	1. Ongi etorria eta mahai inguruaren aurkezpena 2. Mahai-inguruan parte hartu zuten pertsonen azalpenak

### PARTE HARTU DUTE:

- Marian Lizancos
- Txomin Oronoz
- Imanol Galarraga
- Ixabel Olazabal (Hondarribiko Udala)
- Carlos Alejos
- Jon Olano
- J. Rurtabeaz
- Iñaki Azkarate (Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala)
- Javier Alkain
- Jesús Cayetano
- Asun Yarzabal
- Xabier Mina
- Aritz Kanpandegi
- Eduardo Bazterretxea
- M.A. Izagirre
- Ana de la Torriente (OCEANA)
- Jose Angel Torres (S.C.ALANZADI)
- A. Eloy García
- Bernabé del Egido
- I. de la Riva
- Fernando Merino
- Leire Beteta
- Angel Alkain (OLAGARRO)

- Mikel Mariscal
- Manu Eizagirre
- J.R. Emparan

## 1. Ongi etorria eta mahai inguruaren aurkezpena

Ion Elizalde (Ingurumena eta Agenda 21eko zinegotzia eta Alkateordea) ongi etorria eman die Pasaiako kanpo kaiaren inguruan Hondarribiko Udalak antolatutako 3. jardunaldira bertaratutakoei. Ionek aipatu bezala, 3 jardunaldien helburua aipatutako azpiegituraren aldeko zein kontrako argudio ezberdinak ezagutaraztea da. Ondoren, Ionek azaldu du Koro Otegi (Gipuzkoako Ganbera), Javier Belza (ingurumen ekonomialaria) eta Cesar Salvadorrekin batera (Gipuzkoako Foru Aldundia), aldez aurretik 7 pertsonen mahai inguru honetan parte hartzeko izena eman zutela:

- José Manuel Cortizo
- Carlos Fernandez
- Marian Lizancos
- Ana de la Torriente (OCEANA)
- Oneka
- Mikel Mariskal
- Angel Alkain

## 2. Mahai inguruan parte hartu zuten pertsonen azalpenak

Aldez aurretik izena eman zuten herritarren azalpenekin hasi aurretik, Ion Elizalde argitu du parte hartzaile bakoitzak 5 minutu izango dituela Pasaiako portuaren inguruko norberaren iritzia azaltzeko, eta jarraian, José Manuel Cortizori eman dio hitza:

- José Manuel Cortizo: Berak portuan egiten du lan eta azpiegitura honetan eta orokorrean Pasaiako badia osoan dauden baldintza txarrak pairatzen ditu ("hirugarren munduko" baldintzak direla esan du). José Manuelek azaldu du enpresek ez dutela arreta-neurririk, neurri zuzentzaileak eta abar hartzen lan segurtasuna eta ingurumen baldintza egokiak bermatzeko. Gainera, instituzioek eta komunikabideek kanpoko portua egingo dela baieztatzen duen informazioa etengabe ematen digutela esan du. Baina, José Manuelek dioenez, kontutan hartu beharra dago aipatutako azpiegitura eraiki arte, 2045. urte inguruan, ziurrenik langileek ezin izango dutela gaur egungo egoera tamalgarria pairatzen jarraitu eta egoera hau salatzeko dagokion instantzietara joan beharko luketela. Era berean, José Manuelek defendatu du Jaizkibelgo ingurumen-balioak paregabeak direla mundu mailan eta oraindik ere eremu natural honek barneratzen duen ondarea ezezaguna gertatzen dela ordezkari politikoen zein populazioaren artean.
- Marian Lizancos: Hasteko bi galdera luzatu die Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Ganberako ordezkariak:
  - Nahiz eta Udalak portuaren inguruan antolatutako jardunaldiak positiboak diren, ez dira lotesleak. Ondorioz, kanpoko portuaren sustatzaileek galdetuko al diete Gipuzkoako biztanleei kanpoko kaia eraikitzea nahi al duten ala ez?
  - Zeinek eskatzen du eta zeinek balioztatzen du Ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana?

Bestalde, arrantzari dagokionez, Marian Lizancosek esan du arrantza-portuak arrantzarako azpiegitura berriekin hornitzen ari direla, baina bere iritziz, nahiz eta arrantza-portu horiek azpiegitura berriez hornitu, Forondak arrantzaren iturri nagusia izaten jarraitzen du.

Era berean, Marianen arabera, askotan iraganean jartzen dugu arreta eta horren ordez, etorkizunari begira jarri beharko ginateke, Pasaian berrikuntzari eta turismoari lotutako ekimenak sustatzeko aukerak planteatuz.

Energiari dagokionez, Lurralde Zatiko Planean (LZP) energia azpiegituraren bideragarritasuna aztertu da, baina hori ez da kanpoko kaian eraikitzea espero. Marian Lizancosek aipatu du zentral termikorako ikatza ekarri behar bada, egokiena Gijoneko portuarekin koordinazioa eta kolaborazioa bultzatzea litzatekeela. EAEn Bilboko portuarekin nahikoa dugula gaineratu du Marianek.

Aldi berean, Lurralde Zatiko Planaren inguruan honakoa azpimarratu du: Alde batetik, aipatu planean 3 alternatiba aztertu direla, baina horietako batek bakarrik kanpoko kaia eraikitzea proposatzen duela, eta bestetik, kanpoko portua eraikitzeke beharrik izan gabe barneko portua berriztatzea, lehengoratzeta eta garatzea guztiz bideragarria dela.

Gainera, Marianek esan du LZPk berak onartu duela badia berritzeko alternatibak ikertu beharko liratekeela eta horretarako azterlan sakon bat gauzatu beharko litzatekeela.

Azkenik, eguraldia eta beste hainbat faktore direla eta, kantauriar kostaldeko kanpoko porturik berriek galerak izan dituztela azaldu du, eguraldi txarra eta bestelako faktore batzuegatik batez ere. Ondorioz, Marianek galdetu du kanpoko kaia eraikitzeak sortuko dituen kostuei aurre egiteko noraino igo beharko den gaur egungo portuko hainbat eremuetan eraikiko diren etxebizitzaren prezioa.

- Ana de la Torriente (OCEANA): Lehenik eta behin, Anak adierazi du erreferentzia-dokumentuan jasotzen ziren irizpideak ez direla Ingurumen Iraunkortasun Txostenean kontuan izan (itsas-eremuaren karakterizazioa, arrantza, energia azpiegitura, etab.). Jarraian, Anak aipatu du gaur egungo portua berritzea beharrezkoa dela eta ezin dela kanpoko kaiaren eraikitzea sustatu (ez du ulertzen kanpoko kaiaren eraikitzeak nola baldintzatu dezakeen badiaren berritzea).

Ingurumen Iraunkortasunaren inguruko txostenari dagokionez, Anak aipatu du oraindik galdera asko daudela honen inguruan eta ez dela betetzen 2006ko Ingurumen-inpaktuaren Ebaluazioaren legea. Geroago, gaineratu du bere elkarteak (OCEANAK) aipatutako txostenaren inguruan alegazioak jarri dituela, txostena osatu gabe baitago eta nahasgarria gertatzen baita.

Bere azalpenak bukatu aurretik, Ana de la Torrientek Habitaten Zuzendarauaren inguruan aipamen bat egin du: Europako legediaren arabera, itsaso-eremu babestuak sortu beharko liratekeela (orain arte

Euskadin ez da horrelako eremurik sortu, nahiz eta Habitaten Zuzentzarauak 19 urte indarrean daramatzen arren).

- Angel Alkain: Lehenengo, 2009ko urriaren 11ean "El País" egunkariak Bilboko kanpoko portuko zuzendariari egindako elkarrizketa laburbildu du. Angel Alkainek elkarrizketatik ondorioztatu du kanpoko portua eraikitzearen aldeko argudioek ez dituztela ingurumenaren eta ekonomiaren alderdiak kontutan hartzen, soilik gizarte eta hirigintza arloko irizpideak baizik. Era berean, kanpoko kaia eraikiz gero egongo diren segurtasun baldintzen inguruko zalantzak mahai gaineratu ditu. Azkenik, elkarrizketako beste esaldi bat aipatu du: "Ezin dugu 100 kilometroro portu bat izan". Beraz, zalantzan jarriko litzateke kanpoko portuaren bideragarritasuna.
- Mikel Mariskal: Mikelek aipatu du lehen kanpo kaiaren proiektuaren aurka bazegoen, Herritarren Foroko 3 jardunaldi hauetan azaltzen ari diren argudioak entzun eta gero, bere jarrera sendotu egin dela. Ingurumenari dagokionez, Mikelek gogorarazi du Ingurumen Iraunkortasunaren inguruko txostena honako ondiora iritsi dela: Kanpoko kaiak sortuko lukeen inpaktua kritikoa eta latza izango litzatekeela eta Europako instantziek proiektu hau gelditu beharko luketela. Era berean, Pasaiako egungo portuan lan-segurtasun eta -higiene arazoei, kutsadurari, eta abarri- konponbidea emateko beharrezko neurriak abiarazi beharko liratekeela. Azkenik, Mikel Mariskalek aipatu du, bere ustetan argi dagoela kanpoko kaiaren aldeko jarreraren atzetik interes politikoak daudela.

Ondoren, Herritarren Forora bertaratu diren beste pertsona batzuek hartu dute hitza:

- Fernando Merino: Kanpoko portuaren inguruan duen iritzia laburbiltzen duten 4 ondorio irakurri ditu:
  - 1) Kanpoko portua eraikitzea defendatzen duten instituzioek plana baztertu behar dute, ez dagoelako nahikoa arrazoirik azpiegitura hori eraikitzeo eta apropos nahasten delako Pasaiako badiako birsorkuntza kanpoko kaiaren eraikitzearekin.
  - 2) Instituzio eskudunek gaur egungo portuaren azpiegitura berrantolatu behar dute.
  - 3) Irizpide ekonomikoak kontutan izanda, dauden akordio eta kontratuak berrikusi behar dira.
  - 4) Instituzioei kanpoko portua eraikitzearen kontrako herritar ugariren jarrera jakinarazi behar zaie.
- Txomin Oronoz: Jaizkibel du gogoko eta Gipuzkoako industria sektorean duen prestakuntza maila dela eta, uste du kanpoko portua eraikitzeo beharrezkoa den inbertsioa behar bezala ikertuz gero, argi geratuko litzatekeela 3.000-4.000 lanpostu inguru sortu beharko liratekeela proiektua errentagarria izan dadin.

Bestalde, Txominek dioenez, barneko portua berritzea ezinbestekoa da, baina kanpoko kaia eraikitzea, aldiz, ez da beharrezkoa gertatzen. Azken horri dagokionez, Txomin Oronozek gaineratu du portuen arteko elkarlan bultzatu beharko litzatekeela eta ez beraien arteko borroka. Gainera, portua

kanpora atera beharrik izan gabe, gaur egungo portua berritzeko bideak bilatzearen alde dagoela adierazi du.

Txominek plataforma logistikoa bultzatu daitekeela uste du, Europarekin konexioa baitugu. Hori dela eta, aipatu azpiegituraren bideragarritasuna aztertu beharko litzatekeela pentsatzen du.

Bukatu aurretik, Txomin Oronozek kanpoko portua eraikitzen hasten direnerako barneko portuan ez dela jarduerarik egongo aipatu du eta ondorengo galdera luzatu du: Nola liteke instituzio eskudunek portua berritzeko benetako konponbiderik martxan ez jartzea?

- Foroko beste partaide bat: 2011ko otsailaren 10ean antolatu zen Herritarren Foroko bileran emandako informazio bat baieztatu nahi du: Portua unitate ekonomikoa zela pentsatzen zuen arren, badirudi ez dela horrela, azpiegitura hau enpresei alokatutako eremuetan zatituta baitago eta ez dagoelako antolaketa unitariorik, hau da, ez dago antolaketa orokor bat azpiegitura guztiarentzat.
- Ion Elizalde: Duela 10 urte hasi zen aireportuaren gatazka dela eta, Ionek gaur egunean EAEn dauden azpiegituren tamainen inguruan hausnartzen hasi zen. Beranduago, azpiegituren inguruan informazioa biltzen hasi zen eta berak atera zuen ondorioa honakoa izan zen: Aireportua eraikitzea ez zela beharrezkoa ez baitziren garapen iraunkorraren hiru ardatzak kontutan hartzen. Era berean, Ion jabetu zen EAeko lurralde historikoen artean azpiegiturak partekatu ordez, elkarren artean lehia zeudela eta horrela beraien arteko borroka areagotzen zela. Horrez gain, Ionk adierazi du EAEn gaur egun ditugun azpiegituren inguruko eztabaida eta hausnarketa bat egitea beharrezkoa dela. Bukatzeko, berak argi utzi du ez direla horrenbeste azpiegitura behar eta eztabaidatu beharko genukeela benetan gure herrialdeak behar duena zer den eta horrekin batera, zenbat azpiegitura jasan ditzakeen.
- Javier Belza: Javierrek esan du, duela 3 urte Emilio Alfarok (Eusko Jaurlaritzako prentsa zuzendaria) artikulu batean iruzkin bat egin zuela herrialde kontzeptu gisa izan beharko genukeen herrialde-ideiaren inguruan. Ondoren, hizlariak galdetu du kanpoko portua eraikitzeke benetako arrazoiak zeintzuk diren, ez baitira argi eta garbi azaltzen.
- Cesar Salvador: Portuaren etorkizunari buruzko hausnarketa ez oztopatzeko benetako eskaria baldin badago, badiaren birsorkuntza ahalbidetzen duten neurriak martxan jarri beharko lirateke (kanpoko portua eraikitzen hastea itxaron gabe). Izan ere, Cesar Salvadorrek adierazi duen moduan, birgaitze prozesu honen inguruan aurrera pausuak ematen ari dira (Herrera Iparreko ekintzak, eta abar). Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariaren arabera, Estatuko aurrekontuan portua birsortzeko partidak zehaztu dira. Kaiko birsorkuntza ekintzen inguruko finantziarioari dagokionez, Cesarrek adierazi du gaur egun portuan dauden enpresek neurri zuzentzaileak bete ditzaten, ekimen pribatuak kanpotik datozen pizgarriak kontutan izan beharko litzatekeela (merkantziak, eta abar), baina hori ez da Pasaiako portuan gertatzen. Ondorioz, Portuko Agintaritzak ingurumenaren birgaitze-prozesuan parte hartu behar du, horretarako inbertsio publikoa kontutan hartuta. Jarraian, Cesarrek onartu du portua babestearen atzean arrazoi politikoak daudela baina ez "politikeoa". Azkenik, gaineratu du ez dagoela

aldez aurretik ezarritako prozedura jarraitu beharrik eta Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenak zorrotzagoa izan behar duela pentsatzen bada, hala izan beharko duela.

- Koro Otegi: Gipuzkoako Ganberako ordezkariak, kanpo portua oso epe luzerako proiektu bat dela esan du eta proiektu honen alde dauden instituzioek honako mezua igorri nahi dutela adierazi du: Denbora luze martxan egongo den proiektu baten hasieran gaude. Ondoren, Korok Gipuzkoako Ganberan zuhurtzia printzipioa aplikatzen dela eta gaur egun Ingurumen Iraunkortasun Txostenari aurkeztutako alegazioak aztertze fasean aurkitzen direla adierazi du.
- Ion Elizalde: Onartu du badirudiela proiektuaren inguruan hausnarketa egiteko gogo dagoela, baina arazoa prentsan dagoela (badirudi kanpoko kaia berehala eraikitzen hasiko dela, baina honelako berriak ez datoz bat errealitatearekin).
- Koro Otegi: Gipuzkoako Ganberako ordezkariak adierazi du instituzioak egungo portua birmoldatzen hasiko direla eta pauso hori emango dutela kanpoko kaia eraikitzen itxaron gabe.
- Javier Belza: Kanpoko portuaren inguruan hausnartzeko nahikoa denbora dagoela esan du eta orain, daukagun portuaz hitz egiteko garaia dela eta birsortze prozesuari ekiteko momentu ezin hobea dela azpimarratu du. Beraz, egungo portua modernizatzeko eta irtenbideak bilatzeko garaia da, Javierren hitzetan.
- Pacho de León: Gai honen inguruan lana egiten urte asko daramatzala aipatu du eta kanpoko kaia eraikitzea bultzatzen duten arazoak zeintzuk diren ezagutzen dituela esan du. Pacho de Leónen arabera, Pasaiako portuaren afera erabaki politiko garrantzitsuak hartzerantz behartzen duen gaia da. Portuko eremua, Portuko Agintaritzan eskuetan dago eta tokiko administrazioen kontrolpetik at dago (portuko eremuan aberastasuna sortzen da ingurumen baldintzak kontutan hartu gabe).

Pachok gogoratu du, duela 15-20 urte portuko eremua antolatze beharra antzeman zutela herritarrek eta portuko jarduerak ordenatzeko eskatzen hasi zirela. Bere iritziz, egungo azpiegitura dirua galtzen hasi zen kudeaketa eraginkorrik ez zuelako eta argi dago portuaren birmoldaketa bultzatzeko garaia iritsi zenean, instituzioak besteak beste Pasaiako zentral termikoa birmoldatzearen eta portua badiaren kanpoko aldera ateratzearen alde jarri zirela. Hau guztia, gainera, ingurumen inpaktu eta ondorio ekonomiko garrantzitsuekin (eta inork ez daki nork hartuko duen bere gain horien erantzukizuna eta ardura).

Hizlariak adierazi duen moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako planteamenduan kontraesan bat ikus daiteke: Epe luzerako azterketa bat egiteko beharra ulergarria gerta daitekeen arren, ekonomia eta bestelako alderdi batzuen ikuspuntutik behintzat, kanpo portuaren proiektua kolokan geratzen da eta gainera, Aldundiak proposatzen duen finantzazio aukera ere ez dirudi bideragarria denik (azpiegitura berriaren kostu totala zenbatekoa izango den, esaterako, ez dakigu). Aldundiak ezarritako fasekako plangintzak zalantza eta hutsune ugari dituela pentsatzen du Pacho de Leonek (Aldundiak proposatzen duen epe ertainerako planteamendua –

portua berrantolatzea, azpiegituraren funtzionamendua espazio gutxiagoarekin arrazionalizatuz- egokiagoa iruditzen zaio –eskumena duten erakundeen sustatu beharreko alternatiba epe ertaineko badiaren birsorkuntza partzialean oinarritzen dena izan beharko litzateke-).

- Cesar Salvador: Bere ustez, portu-komunitatea izaera sendoa duten entitate eta eragileek osatzen dute. Gipuzkoako Foru Aldundia eta beste erakunde batzuek Pasaiaiko portuari irtenbide bat emateko hausnarketa egiteari ekin zioten aspaldi baina azkenean ikusi zuten eztabaida hori egiteko toki edo dokumentu aproposena Lurralde Zatikako Plana zela. (LZPak lurzorua erabilera eredu eta lurralde antolamenduko bestelako irizpide batzuk finkatzen ditu). Ildo honetan, Cesarren aipatu du LZPan jarduera zehatzak planteatzen direla, besteak beste, mugikortasun eta garraio ereduari buruz eta planteamendu horiek alde aurretik ezarritako irizpide batzuen arabera definitu direla (Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariaren esanetan, aipatu irizpideak beteko balira kanpoko portua eraikitze beharra justifikatuta geratuko litzateke eta kontrako kasuan, ezingo litzateke azpiegitura hori garatu). Ondoren, Cesarrek gaineratu du etorkizuneko gertaera posibleen inguruan aintzat har daitezkeen irizpideak eta portuari lotuta aurrera eramán daitezkeen birgaitze faseak definitzeko aukera ematen duela Lurralde Zatikako Planak. Berak adierazi duen moduan, etorkizuneko eredu bat eskuartean izatea egokia da beharrezko erabakiak hartzen laguntzeko. Bere azalpenak ematen bukatu aurretik, Aldundiko ordezkariak aipatu du planteatutako plataforma logistikoaren kudeaketa aukerei buruzko ikerketa bat prestatu duela Gipuzkoako Ganberak eta horrekin batera, LZPren jendaurreko informaziorako epealdia amaitu berri dela. Horrekin batera, Cesarrek azaldu du Estatuko aurrekontu orokorren partida bat plataforma intermodala jartzeko kostuei aurre egiteko bideratu dela.
- Fernando Merino: Bere ustez, ezinbestekoa da lurraldearen beharrak zeintzuk diren alde aurretik planifikatu eta aurreikustea. Horrez gain, kanpo kaiaren alde dauden erakunde bultzatuta idatzi diren plan eta ikerketa askoren eraginkortasuna zalantzan jarri du Fernandok. Ildo honetan, erakunde horiek sustatutako azpiegiturak martxan jartzeko, alde aurretik aipatutako planak zaharkituta geratuko direla. Fernandok lehen azaldu dituen aurreikuspen eta planifikazio irizpideez gain, ezinbestekoa izan beharko litzateke, aldi berean, proiektatutako azpiegituren helburuak, dimentsioak eta epealdia behar bezala definituta izatea. Bestela, Fernandoren iritziz, sor litezkeen ondorioak oso larriak izatera iritsiko lirateke. Azkenik, kanpoko portuaren proiektuen atzean dauden interesak ezagutzen ez dituela esan du Fernandok.
- Mikel Mariskal: Berak pentsatzen du prentsa ez dela bere kabuz mugitzen eta hedabideetan agertzen diren berri zehatzen atzean interes zehatzak daudela. Badiaren birsorkuntza eta lehengoratzeko prozedurari dagokionez, Mikelek defendatu du birgaitze jarduerak ez direla soilik hirigintza arloa mugatu behar, horiek baina haratago joan beharko liratekeela gaineratuz. Arreta printzipioari dagokionez, Mikelek komentatu du kanpo kaiaren alde dauden erakundeek aurkeztutako ikerketa ekonomikoan printzipio hori aplikatu ez dela iruditzen zaiola. Amaitzeko, berak azaldu du erakundeek diru asko dutela ikerketa, txosten eta publizitatean xahutzeko.



- Banakako herritar bat: Pasaiaiko portuaren etorkizunari eta badiaren birgaitze prozesuari buruzko alderdi guztiek garrantzia handia dutela aipatu du eta arrazoi hori dela medio, gai horiek behar haina sakondu beharko liratekeela. Lurralde antolamenduaren ikuspuntutik, herritarraren esanetan kanpoko portua eraikitzeak ez du zentzurik eta berau eraikitzeko arrazoa enpresa arlokoa omen da eta ez arrazoi politikoa. Hala ere, pertsona honek onartu du gero ordezkari politikoa direla enpresa munduko arraoi horien inguruan herritarrak konbentzitzen saiatzen direnak.
- Banakako beste herritar bat: Gipuzkoako Foru Aldundiak nahiz Gipuzkoako Ganberak Pasaiaiko badia birgaitzea ahalbidetuko duten pausoak behingoz emateko beharraz ohartarazi du herritar honek eta birgaitze prozesuari hasiera emateko aukera badagoela, epe ertaineko planteamenduei itxaroten egon gabe. Jaizkibelgo ur hartuneei dagokionez, pertsona honek adierazi du biztanleek ez dutela gai horri buruzko informazio nahikorik eta hartune horiek ere ingurumen inpaktuak sortzen dituztela.
- Jabier Belza: Plataforma logistikoari dagokionez, Jabierrek pentsatzen du trafikoa zein lurraldearen ikuspuntutik azpiegitura horrek ez duela behar besteko justifikaziorik. Era berean, plataforma horrek lurzoru asko artifizializatuko lukeela uste du eta gainera, ez dago ziur azpiegitura horrekin aberastasun gehiago lortuko litzatekeenik. Bere ustez, plataforma eraikiz gero, trafikoak gora egingo du, lurzoru gehiago okupatuko da, etab. Jabierrek aipatu bezala, Irungo Udala ez da halako plataforma gehiago eraikitzearen aldekoa eta Lezoko Udalak, aldiz, gai honi buruzko informazio nahikorik ez omen du. Azkenik, hizlariak aipatu du plataforma logistikoaren gaia ere behar bezala eztabaidatu eta aztertu beharko litzatekeela.
- Iñaki Azkarate: Itsas-ingurunea Ingurumen Iraunkortasun Txostenean beharrezko sakontasunarekin aztertu ez den arlo bat izan dela esan du Iñakik. Era berean, aipatu du zientzialariak Europa mailan Natura 2000 Sarea nola definitu eta garatzen ari den begiratzen ari direla eta gai honekin arduratuta daudela. Gure lurraldeari dagokionez, Iñaki Azkaratek aipatu bezala, Natura 2000 Sarearen itsas-inguruneak badu bere tokia Iparraldeko kostaldean baina ez ordea Bidasoa ibaitik beherako kosta zatian (Gipuzkoan eta Bizkaiko kostaldean ez du tokirik, orain arte behintzat). Bere ikuspuntuaren arabera, une honetan Jaizkibelerako 2 planteamendu daude mahai gainean:
  - Kanpo eraikitzea eta aukera horrek eragingo lituzkeen inpaktuak
  - Itsasertza babestea, horretarako 300 Km<sup>2</sup>-ko azalera izango luketen itsas eremu babestuak sortuz

Iñakik adierazi duenaren arabera, OCEANA eta Euskadiko Biologoek Elkargoak egindako ikerketak une honetan erakunde eta herri-administrazio ezberdinetan aztertzen ari dira (Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Euskal Legebiltzarra, Europar Batzordea, etab.). Ezin da ukatu, Iñaki Azkarateren hitzetan, Jaizkinel-Ulia Natura 2000 Sarearen hego Euskal Herriko lehen itsas-eremu babestua izango denik. Bere azalpenekin amaitu aurretik, adierazi du Ingurumen Ministerioak Tarifako portua handitzearen aurkako txostena argitaratu berri duela eta espero duela Ministerioaren erabaki hori aurrekari batean bihurtzea.



- Banakako herritar bat: Berak gogora ekarri duen moduan, 50. hamarkadan Pasaiaiko portua eta inguruak oparoak ziren ekonomikoki. Dena den, gaur egungo egoera oso bestelakoa da eta bere ustez, lonjak egun okupatzen duen eremua txikiagoa izatera iritsi beharko litzateke eta portua berrantolatu beharko litzateke (horretarako, beharrezkoa gertatzen diren zoruak libre utz beharko lirateke). Ondoren, pertsona honek aipatu du Pasaiaiko birgaitzea erabatekoa izan beharko litzatekeela (baita ekologikoa ere), eta egun badiara isurtzen duen kolektorearekin zer gertatzen den galdetu du.
- Banakako beste herritar bat: Pertsona honek azaldu du Jaizkibeli kusi eta ulertzeko oso ikuspuntu ezberdinak daudela eta Herritarren Forora bertaratutako kanpo kaiaren aldeko ordezkariari honako gonbitea egin die: Jaizkibelgo ondarea (geologia, paisaia, biodibertsitatea, etab.) behar bezala baloratzeko natur ingurune horretara hurbil daitezela, azpiegitura hori eraikiko balitz sortuko litzatekeen hondamendiaz jabetu daitezela.

Honenbestez, bilera 21:15etan amaitu da.